

**EUSKARA-GAZTELANIA. CASTELLANO-EUSKARA.
ADOREZ HIZTEGIAK
AURKEZPENA**

Orain dela 5 urte, teknología berriak azken aldian ematen ari diren urratsak ikusiz, gure hiztegien baseak internet bidez jendearen esku egokiro jartzeko, bide berriak urratu beharra ikusi genuen. Horrela, gure base guztiak (Definiziozkoa, 3000 HIZTEGIA eta Sinonimoak) batera kontsultatzeko programa berezi bat bideratu genuen, Bizkaiko Aldundiak Teknologia berrientzat eskainitako diru-laguntza erabiliz.



Horrek, baina, programa berriak eskaintzen zituen aukerak baliatzeko edukiak eguneratu eta egokitzea eskatzen zuen. Egin-eginean ere, hiru datu-baseak eraberritzea, euskarak ere azken urte hauetan izugarrizko aurrerakadak eman dituelako.

Horrela, bada, lehenik, euskal irakaskuntzarako premiarik handiena zuen **Eskola Hiztegia**, berriztatu genuen goitik behera. Horretarako, batetik, euskarako hitzen maiztasunari buruzko ikerlan sakon bat egin genuen, eta ikerketa horretako emaitzen arabera aukeratu **Europa Hiztegiaren** datu-base handian, **Eskola Hiztegi**a joango ziren sarrerak. Zuzenketaren ardura nagusia, taldearen ikerketa lanetarako liberaturik genuen Luis Baraiazarra jaunak izan zuen.

Gure ahaleginaren emaitza, definiziozko basea hainbatean berriztatzeaz gainera, ikastoletako umeentzat definiziozko hiz-



tegi erabilgarria eta egokia argitaratzea izan zen. Oso-osoan aplikatu genituen Euskaltzaindiak baturako onartutako arauak, bai sarreretan bai bertan eskaintzen diren esaldietan.

Eman beharreko hurrengo urratsa, **3000 HIZTEGIA** goitik behera orraztu, eta euskara alorrean azken urte hauetan izan diren aurrerakuntzak kontuan hartuz berriztatzea izan dugu. Izan ere, hiru urte luzetako lan astuna.

Bide batez, egiten ziren berriztatzeak eta gehitzeak egokiro datu-basera eramateko programa berezi bat ere egitea ere lortu dugu, ezinbestekoa gertatzen zaigulako kostuak gutxitzeko eta datuak berme osoz basera eramatea ziurtatzeko.

Bestalde, aitortu beharra dugu hasiera-hasieratik, ahalegin guzti horien emaitza izan, eta zuen aurrean jartzen dugun hiztegi eder hau hainbat euskaltzaleen artean, lankidetzan burutua izan dela.

Esan beharra dago, baita ere, argitaratu berri dugun hiztegi eder hau, iaz, gure taldeak argitaratu zuen lehen hiztegiaren (**Sinonimoen hiztegia**-1983) 25. urteurrena betetzean argitaratzeko asmoa genuela. Horrela gogoratu nahi genuen hogeita bost urte luzetan zehar egindako bidea, liburu eder bat plazaratuz.

Dakizuenez, hainbat urtetan euskara hutsezko hiztegiak kaleratzen jardun izan genuen, emaitzarik ederrena **Euskarako Hiztegia** (1986) hiztegi mardula izan zelarik. Geroago, **Oinarrizko Hiztegia**, **Europa Hiztegia** eta **Eskola Hiztegia** argitaratuz jantzi genuen arloa.

Egia esan, euskarako definiziozko hiztegietan lehena izan zen **Euskararako Hiztegiak** izandako arrakastari, eta sortutako diru-sarrerei esker jarraitu ahal izan genuen lexikologia-alorrean lanean. Horrela, Luis Baraiazarra euskaltzain urgazle eta idazle ezaguna jarri genuen lan horretan, etenik gabe jardun izan duelarik euskara lantzen erretiro egunak heldu arte. Era berean, Sinonimoen hiztegiak berriztatzen jarraitu genuen.

Urteetan eskuratutako datu-baseko aberastasunak abiapuntutzat hartuz, 1996an **3000 HIZTEGIA** kaleratu genuen. Hiztegi honek ere arrakasta handia jaso izan du, data horretatik aurrera merkatuan beste zenbait hiztegi agertu diren arren. Hiztegi hau Euskaltzaindiak argitaratu berri zuen euskal hitzen zerrendaren arabera berriztaturik kaleratu genuen 2002an.

Ordutik hona urrats sendoak izan ditu euskal lexikologiak. Azken urte hauetan eskura jarri zaizkigun iturri berriak kontuan izanik, zeharo berriztatuta argitaratu dugu honako hiztegi hau. Ikus daitekeenez itxura eta edukiak goitik behera aldatuta ageri zaigu.

Iaz, argitaratzeko labean prest genuela, Euskaltzaindiak **Hiztegi Batua** berrargitaratu zuen, hainbat gehitze eta berriztapen eskainiz. Hori horrela, honelako lan mardul batek urteetako ibilbidea izan ohi duenez, eskura genuen basea Euskal-



tzaindiaren azken erabakien arabera jartzea ezinbestekotzat jo genuen.

Horrela bada, urtebete geroago kaleratu dugu, goitik behera berriztatua eta **Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan jasotzen dituen sarrera eta azpisarrera guztiei** erantzuna emanez. Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko Lantaldeak proposatutako zerrenda berria ere jaso izan dugu, oraindik Euskaltzaindiaren azken bedekapenaren beharra duen arren. Zeintzuk diren onartutako hitzak eta zeintzuk onarpenaren bidean direnak bereizteko, azken hauei [+] bat erantzi diegu.

Goian zenbakitan eskaintzen denaren arabera, **ADOREZ hiztegiak** argitalpen berri honek, **3000 HIZTEGIA** deritzaneko datu basea zuzentzearen ondoriozko hobekuntzez gainera, gehitze handia izan du, hots, 18.466 sarrera, 22.470 adiera eta 21.060 adibide gehiago. Hala ere, orrialde gutxiago ditu, liburuaren formatua (Orotariko Euskal Hiztegiarena) eta papera (biblia-papera) aldatu ditugulako. Era berean, ugaritze handi horri lekua egiteko, gutxitu egin ditu sarrerako eta erdiko orriak. Hiztegian zehar sakabanatuta genituen laukiak ere kendu egin dira, bertan ageri ziren termino guztiak hiztegi barruan kokatuz.

METODOLOGIA ETA EDUKIAK:

Hiztegi honek bi alde ezberdin (euskara-gaztelania eta castellano-vasco) dituenez, bakoitza prestatzerakoan metodologia berezia erabili da, bai hitzen aukeraketa egiterakoan bai hitz horien adierak aurkezterakoan, baita emandako tratamenduan ere.

Euskara-gaztelania:

Sarreraren aukeraketa:

- Euskaltzaindiak euskara baturako onartutako sarrera eta azpisarrera guztiak jasotzen ahalegindu gara. Letra etzanez eskaintzen dira, ongi bereizita gera daitezen.

- Euskaltzaindiaren Hiztegi Baturako lantaldeak baturako proposatutako sarrerak ere jaso dira, oraindik Euskaltzaindiaren behin betiko onarpena beharko duten arren. Hauek ere letra etzanez eskaintzen dira ondoan [+] bat ezarri zaielarik.
- BOSTAK BAT kultur taldeak orain dela urte batzuk euskarako hitzen maiztasunari buruz egindako ikerketako emaitzetan hedadura handikotzat jotzen diren guztiak jaso dira.
- Era berean, gure **3000 HIZTEGIAn** eta merkatuko beste hainbat hiztegitan lauki bidez bildutako hitz multzoetako terminoak (3.500 inguru) ere jaso dira, euskara batura egokitu ondoren. Hain zuzen ere, horrelakoak izaten direlako sarritan gehien erabiltzen direnak
- Zientzia alorreko sarrerei dagokienez, lehendik genituenaz gainera, euskal zientzialarien artean adostasuna duten sarrerak jaso dira, zalantzarik edota adostasun ezik izan denean **Euskalterm**-en proposatua termino onartu delarik.
- Euskalkiei dagokienez, ahalegin berezia egin da, erabileraren handiko hitz guztiei lekua egiten. Lehendik genituenaz aparte, lekua egin zaie beste zenbait hitzi ere.

Sarreraren tratamendua:

- Esan bezala, Euskaltzaindiak onartutako sarrerak letra etzanez eskaintzen dira. Beste hainbeste egiten da Hiztegi Baturako lantaldeak proposatutakoetan ere, baina hauetan [+] zeinua erantsiz.
- Euskaltzaindiak bere **Hiztegi Batuan** erabiltzen dituen zeinuak [**e.** /**b.**/**ikus**] erabili dira. **Ikus** erabiltzerakoan esku zabalagoz jokatu dugu, hitz zaharkituei, gutxi erabiliei nahiz euskalki alorrean os mugatuak direnei eza-



rriz. Zenbait kasutan, parentesi artean aurkeztuz [h.] du-
tenenekin parekatu ditugu.

- Sarrerei, dagozkion zehaztasun gramatikalak [iz./izond./
izlag.; ad. /adond./adlag.; esap. / interj. eta abar] erantsi
zaizkie. Landare eta animalien kasuetan, zientzia alorre-
ko definizioak ere jaso dira letra etzanez. Hainbat sarre-
ra eta adieratan zientzia-eremuak ere markatu izan da
(Zuz., Fis., Kim. eta abar luzea) parentesi artean eskai-
niz.
- Adierak Euskaltzaindiak proposatutako ordenan jarri di-
ra, jasotzen ez dituen kasuetan **Orotariko Euskal Hizte-**

giak dakartzan eran jartzen saiatuz, beti ere zenbaki bidez bereizita.

- Beren beregi aztertu dira adiera asko dituzten sarrerak, **Orotariko Euskal Hiztegia** eta abar kontuan hartuz, adierak eta egoki sailkatuta eskaintzeko.
- Adibideak, esanahia zehazteko, erabilera egokia zein den aditzera emateko edota kultura transmititzeko erabili izan dira. Lehen partea letra beltzez dutela eta gaztelaniako ordezkoa letra normalez eskaini dira erraz aurkitzeko.

Castellano-Vasco:

Sarreraren aukeraketa:

- Lehendik genituen sarrera guztiak, batez ere adiera askokoak aztertu dira, eta desegokitasunik ikusi denean zuzentzen ahalegindu gara.
- Erdal Akademiak argitaratutako **Diccionario Escolar** deritzanean datozen sarrera gehienak (amerikanismoak izan ezik) jaso dira. Guztira 33.000 sarrera inguru. Bertan ez direnez adberbio arruntak jasotzen, guk beren beregi aztertu eta jaso ditugu, ezinbestekoak ditugulako euskara ongi ikasteko. Adibidez, ezin ikasi euskarako ‘**egiatan, egiaz, benetan...**’ gaztelaniako zerrendan ‘**verdadaderamente**’ hitzari sarrerarik eman gabe. Eta horrela beste hainbat kasutan ere.
- Hezkuntza Ministerioak, inkesta zabal bat egin ondoren, unibertsitate aurreko irakaskuntza-mailetarako proposatutako lexiko osoa jaso da.
- Era berean, gure **3000 HIZTEGIAN** eta merkatuko beste hainbat hiztegitan lauki bidez bildutako hitz multzoetako terminoak (3.500 inguru) ere jaso dira, euskara batutara egokitu ondoren. Hain zuzen ere, horrelakoak izaten





direlako sarritan gehien erabiltzen direnak.

- Horiez gainera, oinarritzko zenbait hiztegitan adostasun handiz onartuta ageri diren hitzak jaso dira.

- Zientzia alorreko hitzen kasuan, gure datu-basea merkatuko hiztegietakoa sarrerekin eta **Euskalterm**-en eskaintzen den datu basekoekin erkatu dugu, eta adostasun handiko hitz guztiak jaso dira. Hala ere, hiztegi orokor hone-tatik kanpo utzi dira, goragoko mailakotzat joz, **LAROUSSE**-n **Gran Diccionario** deritzanean agertzen ez direnak, informatika alorrekoak eta izan ezik.

Sarreraren tratamendua:

- Adierak aurkezterakoan erdal akademiak proposatutako ordena zaindu dugu, lehen aldean bezala zenbaki bidez bereiziz.
- Beren beregi aztertu dira adiera asko dituzten sarrerak, adierak eta Erdal Akademiak onartutako eran egoki sailka-

tuta eskaintzeko. Esapiderik erabilienak jasotzen eta bereizketak ongi egiten ere saiatu gara, euskarako ordezkoko ematerakoan, kalkoak baztertu eta jatortasuna zainduz.

- Adibideak, esanahia zehazteko, erabilera egokia zein den adierazteko, eta kultura transmititzeko erabili izan dira. Lehen partea letra beltzez, eta euskarako ordezkoa letra normalez eskaini dira erraz aurkitzeko.
- Euskarako ordezeko terminoak Euskaltzaindiak onartutakoak direnean, letra etzanez eta handiagoz jaso dira, horiek euskara baturako dagoeneko onartuak izan direla argi eta garbi aditzera emateko. Horrela, erabiltzaileak terminorik hedatuenak ikasi ahal izango ditu.

Erdiko orriak:

Hiztegiko alde biak (**Euskara-gaztelania eta castellano-vasco**) bereizi eta errazago bilatzeko jarri diren orrietan, euskal deklinabidearen eta euskal aditzaren (batukoa eta bizkaierakoa) tratamendu zehatzak eskaintzen dira. Eskemak gutxitu eta tratamendu garatua eskaintzen da, horri horiek erabili nahi dituenak errazerraz egin dezan. Hiztegia elebiduna denez, egokitzen jo da, **3000 Hiztegia**n egin zen bezala, gaztelaniako aditzaren formak jasotzea.

Hasierako orrietan ageri denez, hiztegi hau ez dugu BOSTAK BAT lantaldeak bakarrik burututakoa. Euskararen alorrean eskarmentu handia duten hainbat jakintsuk parte hartu du. Beraz, guztion artean auzolanean lortutako emaitzatzen jo behar dela uste dugu. Ikerketa alorrean Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dugu bi urtetan zehar, eta argitaratzeko BBK-rena. Horri esker, **3000 HIZTEGIAREN** prezioan eskaini ahal izan dugu.

Izan beza jendearen artean gure hiztegiek orain arte jaso izan duten harrera zabala.



HIZTEGIAREN ARGAZKI TXIKIA	Izena: ADOREZ hiztegiak: euskara gaztelania castellano vasco Neurriak: Orotariko Euskal Hiztegiarenak: 160 x 240 mm. Azala: 4 koloretan Papera: Biblia papera; 60ko lodiera Orrrialdeak: 1.556 orrialde Salmenta prezioa: 45 €
-----------------------------------	--

Edukia zenbakitan:

ATALAK	ORRIALDEAK	SARRERAK	ADIERAK	ADIBIDEAK
Hasierakoa:	24			
Euskara gaztelania:	764	61.974	85.601	28.748
Erdikoa:	52			
Castellano vasco:	716	41.494	62.183	70.280
GUZTIRA:	1.556	103.468	147.784	98.928

Abiapuntua:

3000 HIZTEGIA	1.686	85.002	125.314	77.868
----------------------	--------------	---------------	----------------	---------------

Aldea:

ADOREZ HIZTEGIA	-130	+18.466	+22.470	+21.060
------------------------	-------------	----------------	----------------	----------------

EZAUGARRI NAGUSIAK:

1. Euskara-gaztelania aldean:

- Euskaltzaindiak **HIZTEGI BATUA** deritzanean jasotzen dituen sarrera eta azpisarrera guztiak biltzen ditu kurtsibaz markatuta, tratamendu egokia emanez.
- Euskaltzaindiko **Euskara Batuko lantaldeak** baturako proposatutako sarrerak eta azpisarrerak jasotzen ditu kurtsibaz [+]marka erantsita, tratamendu egokia emanez.
- Oinarrizkoak eta erabilera handikoak diren hitzak era berezian tratatu dira.

- d. Zientzia alorrean adostasun handikoak diren hitz guztiak jaso dira, eremuko marka ezarriz. Landare eta animalien kasuan izen zientifikoa ere erantsi zaie.

2. Gaztelania-euskara aldean:

- a. Erdal Akademiak eta Hezkuntzako ministerioak unibertsitate-arteko irakaskuntzarako proposatutako sarrera guztiak (33.000tik gora) jasotzen ditu.
- b. Oinarrizkoak eta erabilera handikoak diren hitzak era berezian tratatu dira.
- c. Zientzia alorrean adostasun handikoak diren hitz guztiak jaso dira, eremuko marka ezarriz. Landare eta animalien kasuan izen zientifikoa ere erantsi zaie.
- d. euskaltzaindiak onartutako hitzak **kurtsibaz eta letra handiagoz** aurkezten dira.

3. Erdiko orriak:

- a. Deklinabidea osotuta eskaintzen da, erakusle, izenordain eta zenbakiena gehituz.
- b. Aditz batuaren kasuan, eskemak eskaintzeaz gainera, joko osoa (laguntzaileena eta trinkoena) garatuta eskaintzen da.
- c. Bizkaiko aditzaren kasuan laguntzailearen eskema eta joko osoa (laguntzaileena eta trinkoena) garatuta eskaintzen da.
- d. Gaztelaniazko aditzaren joko osoa (aditz laguntzaileak eta forma irregularrak) eskaintzen dira.

HIZTEGI HAU ERABILTZEAN
KONTUAN IZATEKOAK

Hiztegi Batuko (HB) sarrerak **letra etzanez**

Hiztegi Batuko Lantaldeak proposatutako sarrerak, **letra etzanez**, ['] **erantsita**

Gainerako sarrerak **letra biribilez**

HB-n “**e**.” duten sarrerak (**baztertze-koak**)

HB-n “**b**.” duten sarrerak (**albokoa hobesten denean**)

HB-n “(-)” duten sarrerak, **marraz lotuta nahiz banatuta idaztekoak**

“**ikus**” duten sarrerak (**gutxi erabiliak, zaharkituak, hedadura txiki-koak...**)

Ezaugarri gramatikal nagusiak (**euskarako aldekoak**)

Zientzia eremua adierazteko laburdurak (**letra biribilez kako artean**)

Definizio zientifikoak (**letra etzanez kako artean**)

kabaret: iz. cabaret

kabestru: iz. cabestro

kabu:⁺ iz. **1** (Geogr.) cabo; **Matxitxako kabua**: cabo de Matxikako. **2 e. kabo. 3 e. kabuz**

kabuki:⁺ iz. (Antz.) kabuki (género de teatro japonés)

beliko: izond. bélico/ca

kailutu, kailu(tu), kailutzen: da/du ad. encallecer(se)

belekume: e. belakume

kaina: e. kana

benedikatu, benedika, benedikatzen: du ad. (h. bedeinkatu) bendecir

kakotx: iz. (h. **koma**) coma

kare(-)lur: iz. tierra caliza (kare-lur/kare lur)

kapela(-)denda: iz. sombrerería (kapela-denda/kapela denda)

1) **kolpera**: ikus kolpetik, kolpez, kolpean

2) **koitadu**: izond. (ikus **gizagaixo**) cuitado/da, infeliz

iz. (izena), **izond.** (izenondoa), **izlag.** (izenlaguna), ad. (aditza), **adond.** (aditzondoa), **adlag.** (adizlaguna)

abako: iz. **1** (Mat.) ábaco, numerador, tabla(s), tanteador. **2** (Arkit.) ábaco, parte superior del capitel en forma de tablero

ababia: iz. **1** (Bot.) arándano (landarea) (*Vaccinium myrtillus*). **2** arándano (fruitua)

abate: iz. (Zool.) pato, ánade (*Anas* sp.); **ahate buztanluzea**: ánade rabudo (*Anas acuta*); **ahate moko-zabala**: pato cuchara (*Anas clypeata*); **ahate txistularia**: ánade silbón (*Anaspenelope*); **ahate-beltza**: cerceta (*Anas nigra*)

Homografoak zenbakiez bereizita

(1ehenengo izenak, izenlagunak eta /izenondoak eta gero aditzak)

Aditz komunztadura markatuta:

- 1) Komunztadura bakarrekoak
- 2) Komunztadura anitzekoak

Adierak **zenbaki beltzez** adierazita

Adibideak, **sarreraren araberako ordenan**

“**esap.**”

Gaztelaniako aldean: **letra etzan handiagoz** HB-n onartutako hitzak

Gaztelaniazko aldean: **ezaugarri gramatikalen laburdurak**

bizitze!: iz. (h. **bizitza**) vida

bizitze²: iz. (acción del verbo ‘bizitu’) **1** aceleración, avivamiento. **2** animación. **3** acción de agriarse

1) **munduratu, mundura(tu), munduratzen:** da/du ad. nacer, venir o traer al mundo

2) **kimatu, kima(tu), kimatzin:** ad. **1** du; podar, quitar las puntas de las ramas. **2** da; brotar o echar nuevas ramas

komisio: iz. **1** (h. **batzorde**) comisión. **2** (h. **be-tekizun**) tarea, función, comisión. **3** (Ekon.) comisión (retribución)

abade: iz. **1** abad. **2** sacerdote, cura; **abade nagusia:** sumo sacerdote

igualmente: adv. **1** berdin, berdinki; **-¡buenos días! -¡igualmente!** -egun on! -berdin zuri ere!, hala ekarri, baita zuri ere!. **2** también, así mismo: halaber, orobat, era berean, bere, baita ere

kontuak kontu: **esap.** de todas formas, sea lo que sea

importante: adj. **1** garrantzitsu, garrantzizko, funtsezko, pisudun, premia handiko, important; **ha traído razones importantes:** arrazoi pisudunak ekarri ditu. **2** notable: **nabarmen, aparteko, nabari.** **3** grande: **handi, eskerga, nagusi; ha sido una fiesta importante:** jai handia izan da

m. (masculino), f. (femenino), s. (sustantivo), adj. adjetivo, v. (verbo), vi. (verbo intransitivo), vt. (verbo transitivo), vr. (verbo reflexivo)

FITXA TEKNIKO LABURRA:**Izena:** ADOREZ hiztegiak: euskara gaztelania / castellano vasco**Neurriak:** Orotariko Euskal Hiztegiarenak: 160 x 240 mm.**Azala:** 4 koloretan**Papera:** Biblia papera; 60ko lodiera**Orrrialdeak:** 1.556 orrialde**Salmenta prezioa:** 45 E**Edukia zenbakitan:**

ATALAK	ORRIALDEAK	SARRERAK	ADIERAK	ADIBIDEAK
Hasierakoa:	24			
Euskara gaztelania:	764	61.974	85.601	28.748
Erdikoa:	52			
Castellano vasco:	716	41.494	62.183	70.280
GUZTIRA:	1.556	103.468	147.784	98.928

Abiapuntua:

3000 HIZTEGIA	1.686	85.002	125.314	77.868
----------------------	--------------	---------------	----------------	---------------

Aldea:

ADOREZ HIZTEGIA	-130	+18.466	+22.470	+21.060
------------------------	-------------	----------------	----------------	----------------

EZAUGARRI NAGUSIAK:**4. Euskara-gaztelania aldean:**

- Euskaltzaindiak HIZTEGI BATUA deritzanean jasotzen dituen sarrera eta azpisarrera guztiak biltzen ditu kurtsibaz markatuta, tratamendu egokia emanez.
- Euskaltzaindiko **Euskara Batuko lantaldeak** baturako proposatutako sarrerek eta azpisarrerek jasotzen ditu kurtsibaz [+]marka erantsita, tratamendu egokia emanez.
- Oinarrizkoak eta erabilera handikoak diren hitzak era berezian tratatu dira.

- d. Zientzia alorrean adostasun handikoak diren hitz guztiak jaso dira, eremuko marka ezarriz. Landare eta animalien kasuan izen zientifikoa ere erantsi zaie.

5. Gaztelania-euskara aldean:

- a. Erdal Akademiak eta Hezkuntzako ministerioak unibertsitate-arteko irakaskuntzarako proposatutako sarrera guztiak (33.000tik gora) jasotzen ditu.
- b. Oinarrizkoak eta erabilera handikoak diren hitzak era berezian tratatu dira.
- c. Zientzia alorrean adostasun handikoak diren hitz guztiak jaso dira, eremuko marka ezarriz. Landare eta animalien kasuan izen zientifikoa ere erantsi zaie.
- d. euskaltzaindiak onartutako hitzak **kurtsibaz eta letra handiagoz** aurkezten dira.

6. Erdiko orriak:

- a. Deklinabidea osotuta eskaintzen da, erakusle, izenordain eta zenbakiena gehituz.
- b. Aditz batuaren kasuan, eskemak eskaintzeaz gainera, joko osoa (laguntzaileena eta trinkoena) garatuta eskaintzen da.
- d. Bizkaiko aditzaren kasuan laguntzailearen eskema eta joko osoa (laguntzaileena eta trinkoena) garatuta eskaintzen da.
- d. Gaztelaniazko aditzaren joko osoa (aditz laguntzaileak eta forma irregularrak) eskaintzen dira.

Patxi Uribarren Leturiaga,
Ikerlanaren koordinatzailea